

# SEGMENTAZIOA

---

Gure enpresaren atal garrantzitsuenetako bat bezeroak dira; izan ere, beraiek dira plataforma erabili eta bizia emango diotenak. Era berean, ere dira enpresaren barruan aktiboki parte hartzen dutenak eta guk ematen diegun baliabideez gozatuko dutenak. Horregatik, atal honetan gure bezeroak identifikatu eta deskribatuko ditugu. Horretako, *Empathy Map*-az baliatu gara.


Bezero oso zehatzak bilatzen ditugu eta oso finkatuta daude bete behar dituzten ezaugarriak. Lehenik eta behin, Espainia mailan egitea erabaki dugu, gure aplikazioarekin posible delako herrialde guztiaren zehar bezeroekin lan egitea.

Gainera, bezeroak sexu-transmiziozko sendaezineko gaixotasuna izatea da betebeharreko baldintza garrantzitsuena eta gure enpresaren oinarri printzipala. Sendaezineko gaixotasun horien barruan B hepatitis, herpes sinplea (VHS edo herpes), VIH eta giza papilomaren birusa (VPH) sartzen dira. Hau ezinbestekoa da, hain zuzen ere, gure enpresaren helburua gaixotasun hau dutenen pertsonen maitasuna aurkitzeko erreztasunak emate delako. Baldintza hau jartzea bezeroak nahiko mugatzea dirudi, baina VIH gaixotasunari begiratuta 150.00 pertsona baino gehiago daude Espainian.



Bestalde, plataforman parte hartu ahal izateko izan beharreko gutxienezko adina 18 urtekoa da. Hortik aurrera edozeinek izango du aukera sartzeko, uste dugu edozeinek izan beharko lukeela maitasuna lortzeko aukera. Hala ere, gehienbat 40-55 urte dituzten pertsonentzat egongo da zuzenduta. Hortaz gainera, ezarritako zerbitzu-kostuaren arabera, erdi-mailako pertsonen zuzenduta dago; izan ere, baliteke hileroko ordaindu behar izanak denontzat eskuragarria ez izatea bihurtzea.

Bakoitzaren sexuari, orientazio sexualari eta beste pertsona batekin bilatzen den harreman motari dagokionez berriz, ez dago inongo arau edo murrizketarik. Arestian esan dugun bezala, auzi honetan ere gure iritziz edonork eduki beharko luke aukera gure zerbitzuaren partaide izateko. Plataforman bertan egongo da bakoitzaren datuak eta lehentasunak finkatzeko aukera.



Bukatzeko, urte batzuk barru, gure enpresak aurreikusi dugun bilakaera eta arrakasta lortzen badu, hispaniar hizkera duten beste herrialde batzuetara zabalduko genuke. Gure enpresarekin eta duen helburu sozialarekin aurrera egiteko eta ahalik eta gehieneko inpaktua eta zabalkuntza izateko.

ETS